

**2006KO AZAROAREN 22AN, SASIETA MANKOMUNITATEKO BATZORDE
ERREKTOREAK EGINDAKO BILERA**

LEKUA: Beasaingo Udalerria

ARETOA: Batzar- Aretoa

EGUNA: Hogeita bia

HILABETEA: Azaroa

URTEA: Bi mila eta sei

HASIERAKO ORDUA: Hemeretziak

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

BILDUAK

Lehendakaria: Pello Garaialde Goikoexea, Beasaingo ordezkaria

Ordezkarriak: Jose Mari Aranburu, Altzagako ordezkaria
Jasone Aranburu, Aramako ordezkaria
Rosa Goñi Jaca, Ataungo ordezkaria
Patxi Plazaola Muguruza, Beasaingo ordezkaria
Prudencio Mujika Albisu, Ezkio-Itsasoko ordezkaria
Iñigo Izagirre Erauskin, Gabiriko ordezkaria
J. Ignacio Irastorza Garmendia, Gaintzako ordezkaria
Felix Urkola Iriarte, Lazkaoko ordezkaria
Kepa Goenaga Alikostes, Lazkaoko ordezkaria
Juan Ramón Larrañaga Mercero, Legazpiko ordezkaria
Vicente Garmendia Martinez, Legazpiko ordezkaria
Jose Mari Lasa Sarasola, Legorretako ordezkaria
Txomin Mendoza Pérez, Olaberriko ordezkaria
Jose Luis Ormazabal Garmendia, Ordiziko ordezkaria
Manuel Iturrioz Pérez, Ordiziko ordezkaria
Bernardo Osinalde, Ormaiztegiko ordezkaria
Itziar Agirre Berriotxoa, Urretxuko ordezkaria
Damian Garmendia Etxabe, Zaldibiako ordezkaria
Jon Ormazabal Berasategui, Zegamako ordezkaria
Mikel Serrano Aperribay, Zumarragako ordezkaria

ETORRI GABEAK: Xabier Ariztimuño Iparragirre Idiazabalgo ordezkaria
Daniel Etxeberria Pascual, Itsasondoko ordezkaria
Angel María Mujika Goya, Mutiloako ordezkaria

Jon Agirre Aburuza, Segurako ordezkaria
Peio González Argomaniz, Urretxuko ordezkaria
Antonio Garcia Agirre, Zeraingo ordezkaria
Fco. Javier Toquero Miguel, Zumarragako ordezkaria

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

Bileran parte hartzen du, ahotsarekin, baina botorik gabe, Iñaki Erauskin Urretabizkaia Sasieta Mankomunitateko zerbitzuburuak.

1.- AURREKO AKTA. 2006ko ekainaren 28an egindako bileraren aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zeresanik ez dagoelako.

2.- LEHIAKETA IREKIA. Baldintza tekniko eta administratiboen pleguak onetsi eta Legazpiko ontzi arinen bereizte eta sailkapen plantaren gestioa eta bertako instalazioen egokitze eta automatizazioa kontratatzeko deialdia.

Iñaki Erauskin zerbitzuburuak aipatu den helbururako egin den baldintza administratibo eta teknikoan azaldu ditu eta jarraian adierazten diren xehetasun nagusienak adierazi aurretik, esan du Legazpiko planta berez, Foru Aldundiarena dela, baina Entitate honekin hitzarmen bat sinatuta dagoela non jasotzen da, plantaren kudeaketa Sasieta Mankomunitateari dagokiola.

Baldintza pleguen xehetasun garrantzitsuenak hauek izango lirateke.

- **Kontratatzeko era eta prozedura:** Lehiaketa irekia eta prozedura arrunta.
- **Gehinezko lizitazioko prezio unitarioa:** 277 euro, BEZ sartu gabe, berreskuratu eta birziklatzaileei entregatutako tona bakoitzeko.
- **Behin behineko bermea:** 11.570 euro
- **Behin betiko bermea:** Adjudikazio aurrekontuaren %4a.
- **Aurkezteko epea, lekua eta ordua:** Proposamenak, Sasieta Mankomunitateko Sarrera Erregistroan, 8.00-13.00 bitartean aurkeztu beharko dira Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean lizitazio iragarkia argitaratzen den hurrengo egunetik hasi eta berrogeita bost (45) eguneko epean. Larunbata edo jaieguna bada, epea hurrengo lanegunean amaituko da.
- **Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua:** Pliken irekitzea Sasieta Mankomunitateko egoitzan (Beasaingo Martina Maiz, 3 behean) egingo da, eguerdiko 12.00etan, proposamenak aurkezteko epea amaitu eta laugarren (4.) lanegunean. Larunbata balitz, pliken irekitzea hurrengo astelehenean egingo da.

- **Esleipen-irizpideak:**

- 1.- Prosamen teknikoaren edukia: 0-50 puntu
- 2.- Proposamen ekonomikoa: 0-40 puntu
- 3.- Hobekuntzak: 0-10 puntu

PROPOSAMEN TEKNIKOAN HONAKO HAUEK BALORATZEN DIRA:

- Instalazioak automatizatu eta planta ustiatzeko aurkeztutako Proposamen Teknikoaren edukia
- Puntuaketa handiena: baldintza Teknikoen Pleguan ezarritako helburuak betetzeko SOLUZIORIK ONENA eskaintzen duen Proposamen Teknikoarentzat
- Lortutako automatizazio maila
- Trinkotasun handia duten materialekin lan egiteko ahalmena
- Prozesuan ziurtatutako errendimendu eta efektibitateak
- Modularitatea, malgutasuna
- Egungo ekipoen aprobetxamendu eta integrazioa
- Etorkizunean prozesatu beharreko materialen aldaketetara egokitzeko ahalmena, bai kantitatara bai berreskuratutako materialen espezifikazio teknikoetara
- Plantan ziurtatutako disponibilitatea (prest egotea)
- Instalazioak egokitu eta automatizatzeko epea (6 hil. gehi.)
- Antolakuntza eta egin beharreko lanen sekuentzia, eta eskainitako giza baliabide eta baliabide materialekiko duten egiazkotasuna eta koerentzia
- Kontratuan aurrikusitako lan guztiak egiteko plantilaren dimentsionamendua eta egokitasuna
- Antolakuntza berriak eskatzen dituen betebeharrak direla eta, lizitatzailleak egungo plantila kontrata berrira nola egokitu behar duten
- Enpleguen iraunkortasuna, eskusio sozialeko arriskua duten kolektibo barruan egon eta lan munduan txertatzeko zailtasunak dituzten pertsonen okupazioa
- Makineria eta instalazioen mantenimendu eta kontserbazio plana
- Garbitasun plana

PROPOSAMEN EKONOMIKOA:

- Puntuaketa handiena (40 puntu) eskaintza onenari
- Gaineratikoei:
40 – (Baja A – Baja B)
- “Batazbesteko baja” baino 15 puntu portzental gehiagoko “baja” duten proposamenek 0 puntu jasoko dute

HOBKUNTZAK:

- Hobekuntzak lehiaketarekin zorrozki zerikusia dutenean eta eskaintzako prezioaren igoera suposatzen ez dutenean bakarrik baloratuko dira.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko iritzia hauek azaldu dituzte:

Patxi Plazaola, Beasaingo ordezkariak esan du, proposamena tekniko, esleipen-irizpideari 50 puntu ematen zaizkiola, eta hainbat aspektu puntuatzen direla. Bere ustetan automatizazio eta ezinduak diren langileriaren artean oreka bat egon beharko litzateke, baina puntuatzeko garaian dagoen moduan irekita uzten da eta zalantzan jartzen du hobe den atal guztiari puntu jakin batzuk ematea edota, atal horretan dauden hainbat xehetasunek alde aurretik gehienera ere jaso zezaketen puntuak adieraztea.

Manuel Iturrioz, Ordiziako ordezkariaren esanetan, hobeto da puntu horien banaketa irekita uztea eta Kontratazio-Mahaiari ahalmena ematea hobeto iruditzen zaion eran puntuak emateko, beti ere, azken hitza eta erabakia Batzorde Errektoreari dagokiolako.

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

Lehenik Legazpiko ontzi arinen bereizte eta sailkapen plantaren gestioa eta bertako instalazioen egokitze eta automatizazioaren kontratazioa arautuko duten baldintza tekniko eta administratiboak onartzea.

Bigarren. Deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, eskaintzak aurkeztu ahal izateko.

Hirugarren. Proposamen teknikoa puntuatzeko garaian automatizazio eta ezinduak diren langileria arteko binomioa kontutan izatea.

3.- TASAK. Beasaingo "Sasieta" zabortegean eta Urretxuko garbigunean zerbitzu publikoak eman eta jarduerak burutzeagatik ordaindu beharreko tasen ordenantza fiskal arautzailearen 2007rako tarifa eranskina onesteko proposamena.

Proposamena honako hau da:

"BEASAINGO "SASIETA" ZABORTEGIAN ETA URRETXUKO GARBIGUNEAN ZERBITZU PUBLIKOAK EMATEAGATIK ETA JARDUERAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASEN ORDENANTZA FISKAL ARAUTZAILEA.

I.- XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua *Sasieta Mankomunitateak, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauan xedatutakoari jarraiki, Beasaingo "Sasieta" zabortegian eta Urretxuko garbigunean amankomunatatuko jarduerak burutu eta zerbitzu emateagatik ordaindu beharreko tasak ezarri eta esijitzen ditu.*
2. artikulua *Ordenantza honen ezartze-eremua Sasieta Mankomunitateko eskubide osoko kide diren udalei mugatua dago, hau da, Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Ezkio-Itsaso, Gaintza, Gabiria, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legazpi, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Urretxu, Zaldibia, Zegama, Zerain eta Zumarraga.*

Edonola ere, 1.997ko apirilaren 30ean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurugiro Departamentuak eta Sasieta Mankomunitateak izenpetutako Lankidetzeta-Hitzarmenean jasotako konpromezuak betetz, Deba Garaiko udalen Mankomunitateak eta Tolosaldeako udalen Mankomunitateak Beasaingo "Sasieta" zabortegira ekarritako hiri hondakinen tratamendu zerbitzua ematen denean ere, Ordenantza hau aplikatu ahal izango da.

II.- ZERGAGAIA

3. artikulua *Beasaingo "Sasieta" zabortegian edota Urretxuko garbigunean zerbitzuak eman eta jarduerak burutzeak eratzten du zergagaia, hauek subjektu pasiboari partikulariki eragin edo onura badakarkioten, beraiek zuzenean edo zeharka motibatuta dituztenean, honela beraien egintza edo hutsegiteak Mankomunitatea behartzen dutelarik ondorengo jarduerak burutu eta zerbitzuak eskaintzera:*
- 1. Beasaingo "Sasieta" zabortegian hiri hondakinak uztea eta tratatzea.*
 - 2. Beasaingo "Sasieta" zabortegian zenbait hondakin inerte uztea eta tratatzea.*
 - 3. Urretxuko garbigunean gehienez 6.000 kg.ko pisu gordina duten ibilgailutan entregatutako hiri hondakinak eta hondakin inerteak utzi, aldi baterako gorde eta ondorengo kudeatzea.*

III.- SUBJEKTU PASIBOA

4. artikulua *Tasen subjektu pasiboak izango dira, zergadun bezala, pertsona fisiko zein juridikoak, jabegoa hartu gabeko herentziak, ondasun-elkarteak eta nortasun juridikorik ez duten gainerako entitateak, ezargarria den batasun ekonomikoa edo ondare banandua eratzten dutenean, zergagaia eratzten duten zerbitzu eta jarduerak eskatu edo haien onura edo eragina jasaten badute.*

Partikularrek eskatu ez baina, horien egintza edo hutsegiteengatik, derrigorrezkoak gertatu diren zerbitzu edo jardueren kasuan, egintza edo hutsegite horiek leporagarri dituztenak.

IV.- SALBUESPENAK, MURRIZPENAK ETA HOBARIAK

5. artikulua *Urretxuko garbigunean emandako hiri hondakinak eta hondakin inerteak utzi, aldi baterako gorde eta kudeatzeko zerbitzua doan izango da eta Ordenantza honetan aurrikusitako tasak ordaindu beharrik ez da izango, ondorengo kasuetan:*
- a) *Entregatutako hondakinak birziklatzera edo gestio berezira zuzentzeko honako materialak direnean:*
- Lorategietako eta inausketako hondakinak*
 - Egurrak (paletak, altzariak, kutxak, oholak etab.)*
 - Plastiko birziklagarriak (polietilenoazko ontziak, film motako plastikoa...)*
 - Papera eta kartoia*
 - Burdinkiak eta txatarrak*
 - Erabilitako arropa*

- Sukaldeko olioak
 - Beirazko ontziak
 - Aparatu elektrikoak (ordenagailuak, telebistak...)
 - Pilak eta poltsikoko telefonoak
 - Autoetan erabilitako olioak
 - Autotako bateriak
 - Etxetako hondakin arriskutsuak: pinturak, bernizak, kolak, disolbatzaileak, fluoreszenteak eta lanparak, aerosolak etab.
- b) Etxeko gauzak (koltxoak, sofak, somierrak...)
- c) Entregatutako hondakinak eraikuntza alorreko hondar inerteak, birziklatu ez daitezkeen zurkiak edota birziklatu ez daitezkeen plastikoa hondarrak direnean, kantitate txikitan, zorrozki etxetan sortuta eta noizean behin eta inolako aldizkotasunik gabe garbigunean entregatzen direnean.

V.- OINARRI EZARGARRIA

6. artikulua Oinarri ezargarria zerbitzua gauzatzen den unitate bakoitzak eratzen du, Ordenantza honetako Eranskinean jasotakoaren arabera.

VI.- KUOTA

7. artikulua Zerga-kuota, oinarriari dagokion tarifa aplikatuz lortutako kantitatea izango da.

VII.- SORTZAPENA

8. artikulua Tasak sortzen dira:

- Zerbitzua ematen hasten denean, Mankomunitateak ekintza bat egin edo espediente bat hasteko eskaera aurkezten denean, edo jarduera amankomunitatea burutzeko obligazio legalaren aurrean. Eskaera aurkeztean tasa aurrez ordaintzea exijituko da eta, hala badagokio, seinalatutako obligazioak betetzeko bermeak eratzea ere bai.
- Urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean, tasaren izaerak bere aldizkakotasuna exijitzen duenean.

VIII.- LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

9. artikulua Sasieta Mankomunitateak kontzeptu bakoitzari dagokion likidazioa egingo du.

10. artikulua Tasak ordainduko dira:

- a) Zerbitzu-emate kasuan, zerbitzua eman aurretik Mankomunitateko kutxetan zuzenean gordailua eginez, beti ere adierazitako gutxieneko diru-kopuruz.
- b) Beren izaeratik alde aurreko gordailua egiteko aukera ematen ez duten zerbitzu-emate kasuan, Administrazioak dagokion kitapena aurkezten duenean.

Ordainketa egiteko borondatezko epea, hilabete batekoa izango da likidazioa jakinarazten den ondorengo egunetik aurrera.

Lurralde Historikoko Zergabilketa Erregelamenduaren arabera, adierazitako epe hori ordainketa egin gabe igaroz gero, premiamendu bidezko behartze-ihardunbideari ekingo zaio besterik gabe eta ordaindu ez diren kuotak dagokien gainordainarekin kobratuko dira.

- c) Zerbitzuak emateagatiko tasen hileroko zenbatekoa 100 euro baino gutxiago denean, Mankomunitateak tasa eskudirutan ordaintzea exijitu ahal izango du zerbitzua ematen den momentuan.

11. artikulua Subjektu pasiboari egotzi ezin diren arrazoiengatik zerbitzua edo jarduera eman edo garatzen ez denean, dagokion zenbatekoaren itzulketa egingo da.
12. artikulua Ordenantza honetan araututako tasa hauei aplikagarriak zaizkie Gipuzkoako Lurraldeko Zergen Foru Arau Orokorrean, Bilketa Arautegian eta bere garapenerako araudian finkatutako kudeaketa, likidazio, inspektzio, bilketa, arau-hauste eta zehapenei buruzko arauak.

IX.- AZKEN XEDAPENA

13. artikulua Ordenantza hau, bere eranskina eta guzti, 2006 urteko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean, eta bere indargabetzea edo aldaketa erabakitzen ez den artean jarraituko du indarrean.

ERANSKINA: EZARRITAKO TARIFAK

HIRI HONDAKINEN TRATAMENDU ZERBITZUA, BEASAINGO "SASIETA" ZABORTEGIAN:

"Hiri hondakin"aren definizioa: etxebizitza partikularretan, dendetan, bulegotan eta zerbitzutan sortutako hondakinak eta beren izaerarengatik edo konposaketarengatik lehen aipatutako toki edo ihardueretan sortzen diren hondakinekin bateragarriak litezkeen bestelakoak, beti ere arriskutsu izendapena jasotzen ez duten hondakinak direlarik.

- Etxetako zabor-bilketatik datozkeen hondakinak
- Azoketako hondakinak
- Etxetako ontzien sailkatze planten erreus zatikia.
- Landare-hondakinak, berdegunetako mantenimendu lanetan sortutakoak, konpostatzeko balio ez dutenak.
- Akabatutako animaliak
- Konfiskatutako elikagaiak edota egoera txarrean daudenak
- Elikagai arloko industrietako kosko eta hondarrak
- Haragi-industrietako eta hiltegitako hondakinak
- Janaridenda, supermerkatu eta merkatalgune handietatik datozkeen hondakin organikoak
- Beste zenbait hiri hondakin

Tarifa aplikagarria: 46,00 €/Tonako (21,96 € zabortejiaren ustiaketara zuzenduak + 24,04 € 1999/31/CE Direktiba Betetzeko Berme-Fondorara zuzenduak).

Bolumen handiko hondakinen tratamendua, esate baterako etxetako altzari, tresna elektriko eta baliorik gabeko bestelako traste zaharren tratamedua %100 handituko da ustiaketa zuzendutako tarifa zatian eta beraz, tarifa aplikagarria honako hau izango da: **67,96 €/Tonako** (43,92 € zabortejiaren ustiaketara zuzenduak + 24,04 € 1999/31/CE Direktiba Betetzeko Berme-Fondorara zuzenduak).

HONDAKIN INERTEEN TRATAMENDU ZERBITZUA, BEASAINGO "SASIETA" ZABORTEGIAN:

- Moldeagintzako hareak

Gehienez onartu daitekeen hare-kantitatea, bere kalitatea eta hornidura-maiztasuna mankomunitateko Zerbitzu Teknikoek erabakiko dute, aukeraketaren ondorioz zabortejiaren suteen aurka edota estaltze lanetan erabiltzeko harerik egokiena aukeratu etapilatzeko.

Tarifa aplikagarria: 10,00 €/Tonako

HIRI HONDAKINAK ETA HONDAKIN INERTEAK UTZI, ALDI BATERAKO GORDE ETA KUDEATZEKO ZERBITZUA, URRETXUKO GARBIGUNEAN:

- Eraikuntza alorreko hondar inerteak: **28,10 €/Tm**
- Birziklatu ez daitezkeen zurkiak: **66,50 €/Tm**
- Birziklatu ez daitezkeen plastikoak: **87,50 €/Tm**
- Autotako gurpilak: **1,15 € / gurpil bakoitzeko**
- Jolas eta aisialdirako makinak eta gaiak (tabakoa, kafea, edariak, janariak etab.) saltzeko makina automatikoak: **12,00 € / makina bakoitzeko**

Une honetan, Bernardo Osinalde (Oramiztegi) eta Mikel Serrano Aperribay (Zumarraga) jaunek bileratik atera dira.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa egin da eta aho batez ondorengo erabakia hartu da:

Lehenik. Beasaingo "Sasieta" zaborategian eta Urretxuko garbigunean zerbitzu publikoak eman eta jarduerak burutzeagatik ordaindu beharreko tasen ordenantza fiskal arautzailearen 2007rako tarifei hasierako onespena ematea.

Bigarren. Espedientea jendaurrean jartzea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta gehien zirkulatzen duen egunkariak 30 eguneko epean iragarkiak argitaratuz, alegazioak aurkeztu ahal izateko eta alegaziorik aurkezten ez bada, tarifak behin-betiko onetsiak geldituko dira.

4.- LEHENDAKARIORDE BERRIAREN IZENDAPENA: Felix Urkolaren dimisioa dela eta, lehendakariorde berriaren izendapena.

Ezagutzera eman da, 2006ko ekainaren 28ko Batzorde Errektorean esandako moduan, Felix Urkola Iriarte jaunak, Sasieta Mankomunitatean 2006ko uztailaren 19an sarrera izan duen idatzia aurkeztu zuela adieraziz lehendakariorde karguari utzi egiten duela.

Batzorde Errektoreko ordezkariak lehendakariorde kargua uzteari buruz ezer esaten ez dutenez, aipatutako errenuntzia onartu egin da.

Beraz, lehendakariordea izendatu behar denez, Idazkariak azaldu du, Estatutuen 4. artikularen arabera, lehendakariordea Batzar Errektoreak izendatu behar duela eta 7. artikulak dioenez, Batzorde Exekutiboa osatzen duten bost kideen artean lehendakariordea ere egon behar dela. Batzorde Exekutiboa osatzen duten barrutiak eta barruti horien orain arteko ordezkariak ondorengoak dira:

- Ataun, Ordizia, Lazkao: Felix Urkola
- Zumarraga, Urretxu, Legazpi, Ezkio-Itsaso, Gabiria eta Ormaiztegi: Mikel Serrano
- Olaberria, Segura, Zegama, Zerain, Mutiloa eta Idiazabal: Jon Agirre
- Zaldibia, Itsasondo, Alzaga, Legorreta, Gaintza eta Arama: Jose M^a Lasa

Manuel Iturrioz Pérez jaunak, Ordiziako ordezkariak, bere burua aurkeztu du, lehenengo barrutiaren ordezkaria izateko eta bide batez lehendakariordetzarako.

Bozketa eginda eta aho batez ondorengo erabakia hartu da:

Manuel Iturrioz Pérez jauna, Ordiziako ordezkaria batzorde exekutiboko kidea eta lehendakariordea izendatzea.

5.- UDALHITZ:

Mankomunitateko funtzionarioaren eta lan-kontratadun pertsonalaren lan baldintzei buruzko eranskinen proposamena eta hala badagokio, onespena.

Lehendakari jaunak ezagutzera eman du, 2006ko azaroaren 26an berriro ere Sasieta Mankomunitateko funtzionario eta lan-kontratadun pertsonalaren negoziatorako mahai-orokorra bildu dela eta ondorengo eranskina onartu duela eta Batzorde Errektoreari ere proposatzen zaiola onartzea. Eranskinaren edukia ondorengoa da:

1. Ordaindutako atsedeen egunak:

Mankomunitatearen zerbitzura lanean aritutako urteen arabera, langileek atsedeen egun hauek izango dituzte:

- 15 urte: egun bat

2. Pertsonalari aurrerakinak ematea:

Mankomunitateko langileek lehen etxebizitza erosteko maileguak eta kontsumorako banakako maileguak jasotzeko eskubidea izango dute, ondoren zehazten diren gehienezko zenbateko eta itzultze-epeetan:

- Kontsumorako banakako maileguak:
 - 3.000 euro: 20 hileko
 - 6.000 euro: 35 hileko
 - 9.000 euro: 50 hileko
- Ohiko etxebizitza erosteko maileguak (urtero izendatutako kopururik handiena: modulu bat):
 - 25.000 euro: 12 urte

Mailegu ematea Mankomunitatean eskumena duen organoak onartutako Araudiaren bidez egingo da.

3. Bizitza aseguruia eta ezintasuna:

Mankomunitateak bere pertsonalarentzako bizitza eta ezintasun iraunkorreko aseguruia, osoa edo erabatekoa, izango du bere kontura, 45.000 eurotako estaldurarekin.

4. 125 eurotako ordainsaria:

Mankomunitateko pertsonalak urteko 125 eurotako ordainsari lineala jasoko du. Ordainsaria konsolidagarria izango da eta 2005eko eta 2006ko abenduan ordainduko da.

5. Azpikontratututako zerbitzuak:

Mankomunitateak azpikontratututako zerbitzuei dagokionean, UDALHITZen jasotakoa beteko du.

6. Negoziazio Batzordea:

2005eko uztailaren 13an Mankomunitateko Batzorde Errektoreak hartutako akordioa betez, Mankomunitateko Batzorde Exekutiboak, langileekin lan hitzarmenari buruzko gaiak negoziatzeko, Negoziazio Batzorde gisa aritzeko ahalmena izango du.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek ondorengo iritziak azaldu dituzte:

Felix Urkola jaunak esan du, aurreko bileran esandakoa mantendu egiten duela eta bere ustetan UDALHITZ dagoen moduan aplikatu behar dela, beste gauza batzuk erantsi gabe eta Beasaingo Udalaren erreferentziak ez diola ezertarako balio. Adierazi du, bere botoa proposamenaren aukakoa izango dela.

Lehendakari jaunak esan du, eranskinean ez dela Beasaingo Udalaren aipamenik egiten eta aurrerantzean Beasaingo Udala ez dela erreferentzi modura hartuko.

Juan Ramón Larrañaga jaunak, Legazpiko ordezkariaren esanetan, Sasietan Mankomunitatean eranskina onartzea eta Udaletan ez, kontraesan bat besterik ez da. Bere proposamena ere UDALHITZ soilik onartzea izango litzateke.

Patxi Plazaola, Beasaingo ordezkariak esan du, zilegi dela UDALHITZ aurretik Mankomunitatean langileriaren onurako onartutako baldintzak berrestea.

Idazkari andreak xehetasun hau zehaztu egin du adieraziz, 2006ko martxoaren 9a baino lehenago onartutako baldintzak izan behar direla.

Manuel Iturrioz jaunak, Ordiziako ordezkariak dio, eranskineko erabakiak suposatzen dituen gai ekonomikoa direla garrantzi gutxiena dutenak, baina filosofia aldetik ondo egin ez dutena dela UDALHITZ ez jarraitzea. Eranskinaren 2. eta 3.puntua, hau da, pertsonalari aurrerakinak emateari eta bizitza aseguruia eta ezintasunari buruzko gaiak Batzorde Errektoreak onartu zituenez, orain ere onartu beharrean daudela.

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, Lehendakariaren proposamena, hau da ERANSKINA onartzea bozkatu da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 4
Aurkako botoak: 14
Abstentzioak: 1

Horren ondorioz, ez da eranskina bere osotasunean onartu.

Jarraian bozkatu da, UDALHITZ eta eranskineko 2. eta 3. puntuak onartzea:

Aldeko botoak: 13
Aurkako botoak: 4
Abstentzioak: 2

Horren ondorioz, aldeko botoak aurkakoak baino handiagoak direnez, UDALHITZ eta eranskineko 2. eta 3. puntuak onartu dira.

6.- INFORMAZIOA

San Markos zabortejiaren itxiera eta Sasieta, Lapatx eta Urteta zabortejiatar hiri hondakinak botatzea.

Aho batez ondorengo erabakia hartu da:

“San Markoseko zabortegia 2007ko urtarrilaren 1ean itxi eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan geratuko diren beste hiru zabortejiatar (Sasieta Beasainen, Lapatx Azpeitian eta Urteta Zarautzen), hiri hondakinak eramateko kaleratutako albistea dela eta, Batzar Errektoreari ondorengo erabaki-proposamena egiten zaio:

1. PIGRUG delakoan aurreikusitako **errauskailua** Donostiako udal-mugapean ezartzeko **behin betiko kokapenik** ez dagoen bitartean eta kokapen horrek **erabateko bideragarritasuna** ez badu eta berau eraikitze hiritik eta administrazio alorreko behar **adineko bermea** ez duen bitartean, Sasieta Mankomunitateak ez du bere gain gaur egun Debagoiena eta Tolosaldeari eskaintzen dizkien solidaritatez aparte konpromisorik hartzerik izango.
2. Etorkizunean, Donostialdea-Txingudiko hiri hondakinak onartzeko edozein konpromiso hartu aurretik, Mankomunitate honen, Donostiako Udalaren, hondakinak sortzen dituzten entitateen eta gai honekin zerikusia duten gaineratiko erakundeen arteko **Lankidetzaren Hitzarmena** onartzea ezinbestekoa izango da, konpromiso juridiko bat gauzatu eta solidaritate hori, Gipuzkoan hiri hondakinaren kudeaketa jasangarri eta iraunkor batekin uztartu ahal izateko.
3. Erabaki honen berri Donostiako Udalari eta Sasieta Mankomunitateko helburu sozial berdina duten Gipuzkoako Mankomunitateei ematea.”

Konpostaje Planta Pilotu

Zerbitzuburuak ezagutzera eman du, Ormaiztegin konpostaje planta kokatzeko ez dela adostasunik egon eta azkenean Lapatxeko zabortejiatar montatu behar dutela esperientzia pilotu moduan.

Mankomunitateko estatutu berrien onespenezko prozesua.

Zerbitzuburuak bi tauletan laburtuta ezagutzera eman du, Mankomunitateko estatutu berrien onespenezko prozesua nola doan. Taulak honakoa hauek dira. Urte amaierarako haserako onespenezko prozesua amaitzea espero da.

<i>UDALA</i>	<i>PLENOKO ONARPENA</i>	<i>HASERAKO ONESPENAREN ARGITARAPENA (GAO)</i>	<i>BEHIN BETIKO ONESPENAREN ARGITARAPENA (GAO)</i>
<i>ALTZAGA</i>	Azaroak 8	Azaroak 14	-
<i>ARAMA</i>	Urriak 10	Urriak 30	-
<i>ATAUN</i>	Urriak 4	Urriak 13	-
<i>BEASAIN</i>	Irailak 28	Urriak 16	-
<i>GABIRIA</i>	Irailak 15	Urriak 3	Azaroak 16
<i>GAINTZA</i>	Abuztuak 24	Irailak 15	-
<i>IDIAZABAL</i>	Irailak 28	Urriak 16	-
<i>LEGAZPI</i>	Irailak 27	Urriak 16	-
<i>OLABERRIA</i>	Azaroak 8	Azaroak 26	-
<i>ORDIZIA</i>	Urriak 9	Urriak 26	-
<i>ORMAIZTEGI</i>	Azaroak 3	Azaroak 16	-
<i>SEGURA</i>	Urriak 19	Azaroak 9	-
<i>ZEGAMA</i>	Irailak 11	Irailak 27	-
<i>ZERAIN</i>	Irailak 25	Azaroak 16	-
<i>ZALDIBIA</i>	Azaroak 14	-	-

<i>UDALA</i>	<i>PREBISIOA</i>
<i>EZKIO-ITSASO</i>	?
<i>ITSASONDO</i>	Ez da tratatu
<i>LAZKAO</i>	Batzordean tratatuko dute lehendabizi eta abenduko plenoan hartuko da erabakia.
<i>LEGORRETA</i>	Abenduko plenoan hartuko da erabakia.
<i>MUTILOA</i>	?
<i>URRETXU</i>	Aste honetan batzordean tratatu eta abenduko lehen plenoan hartuko da erabakia.
<i>ZUMARRAGA</i>	Hazienda Batzordean eta Gobernazio batzordean tratatu dute eta Hazienda Batzordean berriro tratatu ondorten, abenduko lehen plenoan hartuko da erabakia.

7.- ESKAERAK ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko beste gairik ezean, bilera gaueko bederatzia eta hamarretan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.